



BIZI

NAFARROA OINEZ 2018

Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolak antolatuko du

Urriaren 15ean, Lesakan, Iñigo Aritza ikastolakoek gogotsu jaso genuen 2018ko Nafarroa Oinez ikastolen festa erraldoia antolatzeko ardura, bizipozez. Lekuko hori mendiz mendi ilusioz gainezka Lesakatik Altsasura ekarri zuten gure mendi korrikalariak, aldi berean ikastolako gurasoak, ikasle ohiak eta gertukoak direnak, lau etapako lau etapako ibilbide gogor eta eder horretan hainbat bidelagun zituztela. Lekukoa eskuan, erronka bizia dugu aurrez aurre.

Lau herri, 369 ikasle

Iñigo Aritza ikastola lau herriz osaturik dago: Ziordia, Olazti, Altsasu eta Urdiain. Egun Iñigo Aritza ikastolak 369 ikasle ditu: 39 0-3 zikloan, 68 Haur Hezkuntzan, 152 Lehen Hezkuntzan eta 110 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Proiektua sortu zenetik Iñigo Aritzak oso argi izan du zein den bere helburua, euskara eta euskal kulturaren aldeko etengabeko proiektua bultzatzea da, herritik sortua eta herriarentzat. Euskal herrian hain gurea dugun kooperatibismoan oinarrituz eta solidaritate, auzolana eta elkarlaguntza bultzatzen duen proiektua du xede.

Laugarren Oineza. Zergatik?

Urteak aurrera egin eta ikastolaren proiektuak bere horretan jarraitzen badu ere, gure ibilbidearen hasieran sortutako azpiegiturak zaharbertitze baten beharrean daude. Horixe da besteak beste, aurtengo helburuetako bat. Hori eta gure hezkuntza eredia sendotzen eta zabaltzen jarraitu, ikastolan eta kalean, euskara eskolan bai baina kalean ere ezaguna eta erabilia izan daitezen.

Lehendabiziko Nafarroa Oineza Altsasuko ikastolak eta Etxarri Aranazkoak antolatu zuten elkarlanean, 1981. Urtean.

Etxarri Aranatzek eta Altsasuk ikastola bana sortu ostean, 1993. Urtean, Iñigo Aritza ikastolak antolatu zuen bere bigarren Nafarroa Oinez festa. Gaur egun ikastolako gure ikurra den txoria orduko Nafarroa Oinezeko diseinatu zen.

Eta 2005ean Iñigo Aritza ikastolak berriro ere Nafarroako ikastolen festa erraldoia antolatu zuen, Oinknez! Ieloarekin.

Orain, 2018ko urriaren 21ean Nafarroa Oinez festa antolatzeko erronka dugu aurrean.



Erronka berria, inklusiboak izan

Aurten erronka berri bat dugu eskuartean Nafarroa oinez INKLUSIBOA egitea.

Zer esan nahi du horrek? Beno ba urteak dira gure ikastolak inklusibitatearen aldeko apustua egin zuela, pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntza baten bidean eta ikasleen *aniztasunari* arreta jarritz.

Oraingoan ikastola espazio fisikotik atera eta aisialdian benetako pausu kualitatibo bat emateko erronka abian dugu. Honela, Oinez inklusibo bat diseinatu eta garatzeko apustua egiten dugu. Gaurtik hasi eta egingo ditugun ekitaldi eta jarduera guztietan inklusiboak izaten ahaleginduko gara, hori da gure apustua eta gure erronka.

BIZI, leloa eta logoa

“BIZI” da gure leloa, lelo laburra eta ausarta, gure ustez indar handia duena, alaia, irekia eta positiboa. Ilusioa, indarra eta gogoia adierazten du bote-prontoan, eta, hain zuzen ere, leloak duen zabaltasuna da bere indar nagusia. Izan ere, “BIZI” hitza gutako bakoitzak sentimendu, bizipen edota ideia batekin lotzen du; ez du, zertan, berdina izan behar. Horregatik, jende asko leloarekin identifikatua sentituko dela uste dugu eta hori da bilatu nahi izan duguna.

Logoan berriz, elementu zentrala lorea da, baina lore horren eraikuntzan Iñigo Aritza ikastolaren eta Oinezaren hainbat zutabe ikusi ditzakegu. Lehenik, BIZI leloarekin lotura zuzena duen bihotza ikusi dezakegu, lorearen petaloek itxura hori baitute. Bigarrenik, 4 bihotzez osaturiko lorea da, Iñigo Aritza osatzen duten lau herriak irudikatu nahi ditugulako: Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia.

4 herri hauekiko erreferentzia gisa ere erabili ditugu 4 kolore desberdin logoan zehar. Hirugarren, petaloak zirkulu batean elkartzen dira, zirkulu batek lotzen ditu. Izan ere, gure ikastola elkarlanean dagoen komunitate baten gisara irudikatzen dugu, hainbat sektorez osatua: ikasleak, gurasoak, irakasleak, gainontzeko langileak... Denok elkarloturik gure helburuak lortzeko.

**“Iraganak bultzatuta eta geroak tiraka
Orainean Nafarroa Oinez dugu.
Ilusioz, gogoz, elkarlanean
Euskara, Ikastola...
BIZI ditugu”**